

UPV/EHUko MASTER OFIZIALEN MAPA

2011ko urtarrilaren 15a eta martxoaren 20a

AURKIBIDEA

Sarrera	3
A) Hizkuntzaren erabilera	3
B) Generoaren edota berdintasunaren zeharkako aipamenak helburuetan, gaitasunetan eta sarrera baldintzetan	9
C) Berdintasun edota generoari buruzko master espezifikoak	12
D) Berdintasunari buruzko irakasgai espezifikoak	12
E) Berdintasunari buruzko gai espezifikoak	21
F) Ikerketa ildoak	26
G) Masterretako irakasleak	28

UPV/EHUko MASTERREN MAPARI BURUZKO DATUEN LABURPENA

Jarraian aurkeztuko ditugun datuak Euskal Herriko Unibertsitatearen webgunean (www.ehu.es) dagoen UPV/EHUko master ofizialen eskaintza aztertzearen emaitza dira.

Batetik, “Aurkezpena”, “Helburuak” eta “Sartzeko baldintzak” ataletako testuak aztertu ditugu, hizkuntza nola erabiltzen den eta genero eta/edo berdintasun aipamenik badagoen edo ez dagoen ikusteko. Bestalde, master bakoitzeko irakasgaiak aztertu ditugu, baita horietako gaiak ere, berdintasunari eta genero ikuspegiari buruzko irakasgai eta gai espezifikoak identifikatzeko. Atalok 2011ko urtarrilaren 15etik martxoaren 20ra bitartean aztertu ditugu, denboraldi horretan eskuragarri zegoen informazioa abiapuntutzat hartuta.


Halaber, berdintasunari edo genero ikuspegiari loturiko ikerketa ildoetako buruzko informazioa bildu dugu eta hainbat datu atera ditugu: masterretako batzorde akademikoak nola osatuta dauden, irakasleen artean zenbat diren emakumezkoak eta zenbat gizonezkoak, eta masterren arduradun lanetan zenbat emakumezkoak eta zenbat gizonezkoak diharduten. Alderdi horiei buruzko informazioa 2011ko maiatzaren 2tik 11ra bitartean jaso dugu.

Datuak bildu ostean, zera ikusi ahal izan dugu:

A) Hizkuntzaren erabilera

92 master ofizialetatik, 2k bakarrik darabilte erabat zuzen hizkuntza, emakumeak ikusezin bihurtzen ez dituzten hitz barne-hartzaileak baitarabiltzate. Jakintza arloari erreparatuz, masterretako bat Kazetaritza eta Komunikaziokoa da (arloan 3 daude) eta bestea, berriz, Filosofiakoa (arloan 3 daude).

Nolanahi ere, nabarmendu behar da bi kasuetan informazioa ez zegoela gaztelaniaz; aitzitik, batean ingelesez zegoen, eta bestean, berriz, euskaraz. Informazioa gaztelaniaz ematen duten master guztiek darabiltzate, noiz edo noiz, hitz maskulinoak generiko gisa.



1. irudia. Master ofizialen proportzioa, hizkuntzaren erabilera egokiaren arabera

Bestalde, **92 masterretatik 44tan hizkuntzaren erabilera sexista ikus dezakegu**, maskulinoa generiko gisa erabiltzen baitute eta ez baitituzte emakumeak ikusgai jartzen, ezta hitz generiko edo barne-hartzailerik baliatzen ere.




2. irudia. Master ofizialen proportzioa, hizkuntzaren erabilera sexistaren arabera

Jakintza arloari erreparatuz, proportzioa honako hau da:

Jakintza arloa	Hizkuntzaren erabilera sexista egiten duten jakintza arloko masterraren kop.	Jakintza arloko masterraren kopurua, guztira	%
Zuzenbidea	1 master	3 master	% 33,3
Hezkuntza	2 master	4 master	% 50
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	1 master	5 master	% 20
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	2 master	4 master	% 50
Kazetaritza eta Komunikazioa	1 master	3 master	% 33,3
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	1 master	2 master	% 50
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	4 master	11 master	% 36,36
Ekonomia eta Enpresa	4 master	7 master	% 57,14
Fisika, Kimika eta Materialak	4 master	7 master	% 57,14
Ingeniaritza eta Teknologia	8 master	13 master	% 61,53
Ingurumena eta Baliabide Naturalak	3 master	5 master	% 60
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	6 master	8 master	% 75
Soziologia Juridikoa	1 master	1 master	% 100a
Historia	2 master	2 master	% 100a
Matematika	1 master	2 master	% 50
Arkitektura	1 master	1 master	% 100a

Horrenbestez, ikus dezakegun bezala, hizkuntzaren erabilera sexista egiten duten master gehien dituzten hiru jakintza arloak Arkitektura, Historia eta Soziologia Juridikoa dira.

Aldiz, Nazioarteko Ikasketak eta Lankidetzaren arloan daude hizkuntzaren erabilera sexista egiten duten master gutxiak.



3. irudia. Hizkuntzaren erabilera sexista egiten duten masterren proportzioa, jakintza arloaren arabera


Hizkuntzaren erabilera sexista egiten duen masterren bat duten jakintza arloei dagokienez, horiek jakintza arlo guztiekiko zer proportzio duten ikus dezakegu ondorengo grafikoan:



4. irudia. Hizkuntzaren erabilera sexista egiten duen masterren bat duten jakintza arloen proportzioa

Gainerako 46 master ofizialetan hizkuntzaren erabilera aldakorra da; alegia, hitz barne-hartzaileak eta maskulinoa generiko gisa txandakatzen dituzte. Bereziki, “Sartzeko baldintzak” atalean, maskulinoa behin eta berriro erabiltzen da generiko gisa titulazioetan, dirudienez, iturrian ere (UPV/EHUko titulazioen zerrenda ofizialean) hala erabiltzen delako. Hori dela eta, “Aurkezpena” eta “Helburuak” ataletan hizkuntza egoki darabilten masterrak (bi sexuak aipatzen dituzte eta “ikasleak” edo “pertsonak”

bezalako hitzak baliatzen) kategoría honetan sartu behar izan ditugu, “Sartzeko baldintzak” atalean titulazioak maskulinoan idazteko joera horri jarraitzen baitzioten.



5. irudia. Hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten master ofizialen proportzioa

Jakintza arloei erreparatuz, hizkuntzaren erabilera aldakorra (hitz barne-hartzaileak eta maskulinoa generiko gisa, txandaka) honako proportzio hauetan antzeman dugu:

Jakintza arloa	Hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten jakintza arloko masterrren kop.	Jakintza arloko masterrren kopurua, guztira	%
Artea	2 master	2 master	% 100a
Zuzenbidea	2 master	3 master	% 66,6
Hezkuntza	2 master	4 master	% 50
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	4 master	5 master	% 80
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	1 master	1 master	% 100a
Berrikuntza eta Jakintza	1 master	1 master	% 100a
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	2 master	4 master	% 50
Kazetaritza eta Komunikazioa	1 master	3 master	% 33,3
Psikologia	2 master	2 master	% 100a
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	1 master	2 master	% 50
Soziologia eta Politika Zientzia	4 master	4 master	% 100a
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	7 master	11 master	% 63,63
Zientzia eta Teknologia Espaziala	1 master	1 master	% 100a
Ekonomia eta Enpresa	3 master	7 master	% 42,8
Filosofia	2 master	3 master	% 66,6
Fisika, Kimika eta Materialak	3 master	7 master	% 42,8
Ingeniaritza eta Teknologia	5 master	13 master	% 38,46
Ingurumena eta Baliabide Naturalak	2 master	5 master	% 40
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	2 master	8 master	% 25
Matematika	1 master	2 master	% 50


Hau da, 23 jakintza arloetatik 20tan hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten eta hitz barne-hartzaileak eta maskulinoa generiko gisa txandakatzen dituzten masterrak daude. 20 arlo horietatik 6tan master guztiak daude hizkuntzaren erabilera aldakorrari dagokion kategorian: Artea (2 master, 2tik), Feminismoa eta Berdintasuna (1 master, 1etik), Berrikuntza eta Jakintza, Psikologia (2 master, 2tik), Soziologia eta Politika Zientzia (4 master, 4tik), eta Zientzia eta Teknologia Espaziala (1 master, 1etik).

Ondorengo grafikoan, jakintza arlo guztien eta hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten masterrak biltzen dituzten arloen arteko proportzioa ikus dezakegu:




6. irudia. Hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten masterrak dituzten jakintza arloen proportzioa

Jakintza arloei erreparatuz, hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten master gehien dituztenak honako hauek dira: Artea; Berrikuntza eta Jakintza; Psikologia; Soziologia eta Politika Zientzia; eta Zientzia eta Teknologia Espaziala. Aldiz, halako master gutxien dituen arloa Informazioaren Teknologiena da:



7. irudia. Hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten masterren proportzioa, jakintza arloaren arabera

Laburbilduz, masterren egoera, hizkuntzaren erabilerearen arabera, honako hau da:



8. irudia. Master ofizialen proportzioa, hizkuntzaren erabilerearen arabera


Ikus daitekeenez, nagusi dira azalpen testuetan hizkuntzaren erabilera aldakorra –alegia, hitz generikoak eta maskulinoa generiko gisa txandakatzea– egiten duten masterrak, nahiz eta oso gertu dauden testu guztietan hizkuntzaren erabilera sexista egiten dutenak. Salbuespen dira hizkuntza beti egoki erabiltzen duten masterrak.

B) Helburuetan, gaitasunetan eta/edo sartzeko baldintzetan generoa eta/edo berdintasuna aipatzea

92 masterretatik 19k berdintasunari loturiko helburuak eta/edo gaitasunak biltzen dituzte. Honako hauek dira:


Berdintasunari loturiko helburuak eta/edo gaitasunak biltzen dituzten masterrak	
Jakintza arloa	Masterra
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetz	Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra
	Garapena eta Lankidetz Unibertsitate Masterra
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra
Soziologia eta Politika Zientzia	Gazteari buruzko Ikasketak Unibertsitate Masterra
	Euskal Nazionalismoa XXI. Mendean Unibertsitate Masterra
	Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan Unibertsitate Masterra
	Gobernantza eta Politika Ikasketak Unibertsitate Masterra
Arkitektura	Zaharberritzea eta Kudeaketa Unibertsitate Masterra
Hezkuntza	Teknologia, Ikaskuntza eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra
	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Unibertsitate Masterra
	Psikodidaktika Unibertsitate Masterra
Historia	Garaiko Historia Unibertsitate Masterra
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	Literatura Konparatua Unibertsitate Masterra
Kazetaritza eta Komunikazioa	Gizarte Komunikazioa Unibertsitate Masterra
Psikologia	Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Antolamendua eta Kultura Unibertsitate Masterra
Zuzenbidea	Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterra
Soziologia Juridikoa	Soziologia Juridikoa Unibertsitate Masterra
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Unibertsitate Masterra
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	Elikadura eta Osasuna Unibertsitate Masterra

Hona hemen, master guztietatik, generoa eta/edo berdintasuna aipatzen dutenen proportzioa:



9. irudia. Helburuetan eta/edo gaitasunetan generoa eta/edo berdintasuna aipatzen duten master ofizialen proportzioa

Jakintza arloei erreparatuz, 19 masterrak 13 jakintza arlotakoak dira. Horrenbestez, jakintza arloen erdiak baino gehixeagok dituzte helburuetan edo gaitasunetan generoa eta/edo berdintasuna aipatzen duten masterrak.




10. irudia. Generoa aipatzen duten masterrak dituzten jakintza arloen proportzioa

Hona hemen helburuetan eta/edo gaitasunetan generoa eta/edo berdintasuna aipatzen duten masterren proportzioa, jakintza arloen arabera:

Jakintza arloa	Helburuetan eta/edo gaitasunetan eta/edo aipatzen duten masterren kop.	Jakintza arloko masterren kopurua, guztira	%
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	2 master	5 master	% 40
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	1 master	1 master	% 100a
Soziologia eta Politika Zientzia	4 master	4 master	% 100a
Arkitektura	1 master	1 master	% 100a
Hezkuntza	3 master	4 master	% 75
Historia	1 master	2 master	% 50
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	1 master	4 master	% 25
Kazetaritza eta Komunikazioa	1 master	3 master	% 33,3
Psikologia	1 master	2 master	% 50
Zuzenbidea	1 master	3 master	% 33,3
Soziologia Juridikoa	1 master	1 master	% 100a
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	1 master	2 master	% 50
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	1 master	11 master	% 9

Bistakoa denez, 4 arlotan, master guztiek aipatzen dute generoa. Hain zuzen ere, honako hauetan: Soziologia eta Politika Zientzia (4 master), Soziologia Juridikoa (1 master), Arkitektura (1 master) eta Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna (1 master).

Arlo bakoitzeko master guztietatik generoa aipatzen duten masterren arteko alderik handiena Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna arloan dago. Bertan, 11 masterretatik 1ek bakarrik aipatzen ditu berdintasunarekin edo genero ikuspegiarekin zerikusia duten alderdiak. Jarraian, modu grafikoan irudikatu ditugu proportzio hauek:



11. irudia. Generoa aipatzen duten masterren proportzioa, jakintza arloaren arabera


Sartzeko baldintzei dagokienez, 92 master ofizialetatik 1ek bakarrik ditu genero erreferentziak. Hain zuzen ere, Soziologia Juridikoa Unibertsitate Masterrak (Soziologia Juridikoa arlokoa), sartzeko irizpideen artean, “genero oreka” aipatzen baitu.

C) Genero eta/edo berdintasun master espezifikoak

UPV/EHUko master ofizialen eskaintzan, **arreta berariaz berdintasunean eta genero ikuspegiari jartzen duen master bat dago**. Master hori Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra da, Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna jakintza arloko bakarra.

D) Berdintasunari buruzko irakasgai espezifikoak

92 master ofizialetatik 12k berdintasunari buruzko irakasgai espezifikoak dituzte.



12. irudia. Berdintasunari eta/edo generoari buruzko irakasgai espezifikoak dituzten masterren proportzioa

Horietatik, 6 masterrek nahitaezko irakasgaiak dituzte eta beste 6ek, berriz, hautazkoak.




13. irudia. Nahitaezko eta hautazko irakasgai espezifikoak dituzten masterren proportzioa

D.1. Genero eta/edo berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikokoak

Hona hemen berdintasunari buruzko **nahitaezko irakasgai espezifikokoak** dituzten master ofizialen zerrenda:


Jakintza arloa	Nahitaezko irakasgai espezifikokoak dituzten masterrak
Zuzenbidea	Gizarte Demokratikoa, Estatu eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterra
Hezkuntza	Psikodidaktika Unibertsitate Masterra
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak Unibertsitate Masterra
Kazetaritza eta Komunikazioa	Gizarte Komunikazioa Unibertsitate Masterra
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Unibertsitate Masterra
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra

Jarraian, modu grafikoan irudikatu dugu berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikokoak dituzten masterren proportzioa, master guztiei dagokienez:



14. irudia. Berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikokoak dituzten master ofizialen proportzioa, master guztiei dagokienez

Jakintza arloei erreparaturik, 23 jakintza arloetatik, 6k berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikokoak dituzten masterrak dituzte.




15. irudia. Nahitaezko irakasgai espezifikoak dituzten masterrak dituzten jakintza arloen proportzioa

Hona hemen berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak dituzten masterrak dituzten jakintza arloak:


Jakintza arloa	Berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak dituzten jakintza masterrren kop.	Jakintza arloko masterrren kopurua, guztira	%
Zuzenbidea	1 master	3 master	% 33,3
Hezkuntza	1 master	4 master	% 25
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	1 master	5 master	% 20
Kazetaritza eta Komunikazioa	1 master	3 master	% 33,3
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	1 master	2 master	% 50
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	1 máster	1 máster	% 100a

Horrenbestez, ikus dezakegunez, berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak dituzten masterrak dituzten jakintza arloen artean, Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna nabarmendu behar da, % 100a baitu –bestela esanda, arloko master bakarrak berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak ditu–. Aldiz, Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak arloak du proportzio txikiena – arloko 5 masterretatik batek bakarrik ditu berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak–.



16. irudia. Berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak dituzten masterren kop., jakintza arloaren arabera

Master ofizialetan dauden berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoak guztira 15 dira, master ofizial guztietako nahitaezko irakasgaiak 503 izanik.



17. irudia. Berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoaren proportzioa, master ofizialetako nahitaezko irakasgai guztiei dagokienez

Berdintasunari buruzko nahitaezko 15 irakasgai espezifiko horiek ondorengo ezaugarriak dituzte:

- Irakasgaiaren kredituei dagokienez: irakasgai horietatik 14 3 kreditukoak dira eta bestea 4 kreditukoa.
- Gaitasunetan berdintasuna aipatzeari dagokionez: 15 irakasgaiak berdintasuna aipatzen dute gaitasunetan.

- Bibliografia dela eta:
 - 15 irakasgaietatik 9k APA¹ arauak erabiltzen dituzte bibliografian.
 - 15 irakasgaietatik 5ek ISO² arauak erabiltzen dituzte bibliografian.
 - 15 irakasgaietatik 1ek APA eta ISO arauak txandakutzen ditu.
 - Irakasgai guztiek genero bibliografia espezifikoa dute.
- Irakasleei dagokienez: irakasgai batek berak ere ez ditu irakasleak zehazten.
- Irakasgaiez arduratzen diren sailei dagokienez: irakasgai batek bakarrik zehazten du zer sailen ardurapean dagoen (Garapen eta Lankidetzaren Masterreko irakasgaia da eta Ekonomia Aplikatua I Sailaren ardurapean dago).

¹ Bibliografian APA arauak erabiltzen direnean, egilearen iniziala adierazten da, ez izen osoa.

² Bibliografian ISO arauak erabiltzen direnean, egilearen izen osoa ematen da.

D.2. Genero eta/edo berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikoak

Hautazko irakasgai espezifikoak dagokienez, 92 master ofizialetako 6tan daude. Honako hauek dira:

Jakintza arloa	Hautazko irakasgai espezifikoak dituzten masterrak
Hezkuntza	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Unibertsitate Masterra
Nazioarteko Ikasketak	Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra
Historia	Garaiko Historia Unibertsitate Masterra
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	Literatura Konparatua Unibertsitate Masterra
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa Unibertsitate Masterra
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra

Jarraian, modu grafikoan irudikatu dugu berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikoak dituzten masterren proportzioa, master guztiei dagokienez:




18. irudia. Berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikoak dituzten masterren proportzioa, master guztiei dagokienez

Jakintza arloei erreparatuz, 23etatik 6k berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikoak dituzten masterrak dituzte, honako proportzio hauen arabera:

Jakintza arloa	Berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikoak dituzten jakintza arloko masterren kop.	Jakintza arloko masterren kopurua, guztira	%
Hezkuntza	1 master	4 master	% 25
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	2 master	5 master	% 40
Historia	1 master	2 master	% 50
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	1 master	4 master	% 25
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	1 master	2 master	% 50
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	1 master	1 master	% 100a

Ikasketa Feministak eta Generokoak jakintza arloak ditu, espero bezala, berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikogehien; horren atzetik, tarte dezentera, Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzatarloa dago. Gainerako arloak nahikoa berdinduta daude hautazko irakasgai espezifikogak dituzten masterren proportzioari dagokionez.



19. irudia. Berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikogak dituzten jakintzarloen proportzioa, arlo bakoitzeko master guztien arabera

Guztira, berdintasunari buruzko hautazko 20 irakasgai espezifikogak daude, eta hautazko 1.216 irakasgai.



20. irudia. Berdintasunari buruzko hautazko irakasgai espezifikogaren proportzioa, hautazko irakasgai guztien arabera

Hautazko 20 irakasgai espezifikogak horiek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Kredituei dagokienez:
 - 5 kredituko irakasgaiak: 3 irakasgai
 - 4 kredituko irakasgaiak: 1 irakasgai
 - 3 kredituko irakasgaiak: 16 irakasgai
- Gaitasunetan berdintasuna aipatzeari dagokionez: 20 irakasgaiek berdintasuna aipatzen dute gaitasunetan.

- Bibliografia dela eta:
 - 20 irakasgaietatik 12k APA arauak erabiltzen dituzte bibliografian.
 - 20 irakasgaietatik 7k ISO arauak erabiltzen dituzte bibliografian.
 - 20 irakasgaietatik 1ek APA eta ISO arauak konbinatzen ditu.
 - 20 irakasgaietatik 18k genero bibliografia espezifikoa dute.
- Irakasleei dagokienez: masterretako bateko (hots, Garaiko Historia Unibertsitate Masterra) irakasgai batean bakarrik zehazten dira irakasleak. Guztira 4 emakumezko dira (gizonezkoak ez).
- Irakasgai arduratzen den sailari dagokionez: bi master ezberdinetako hiru irakasgairi buruz baino ez da aipatzen: Globalizazioa eta Garapena Masterra (Ekonomia Aplikatua I Saila) eta Garaiko Historia Unibertsitate Masterra (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Historia Garaikidea Saila eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Historia Garaikidea Saila).


Laburbilduz, generoari buruzko irakasgai espezifikoei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna jakintza arloak ditu berdintasunari eta genero ikuspegiari buruzko nahitaezko eta hautazko irakasgai espezifikoak dituzten master gehien.
- Nahitaezko irakasgaien % 2,98 eta hautazkoen % 1,64 baino ez dira generoari buruzko espezifikoak.
- Nahitaezko eta hautazko irakasgai espezifikoak dituzten masterrak jakintza arlo berekoak dira eta, batzuetan, master berberak hainbat irakasgai espezifiko biltzen ditu, batzuk nahitaezkoak eta besteak hautazkoak.
- Berdintasunari buruzko nahitaezko irakasgai espezifikoek 3 edo 4 kreditu dituzte (hautazko irakasgai espezifikoek % 93,3 3 kreditukoak dira eta gainerako % 6,7a 4 kreditukoak); aitzitik, hautazkoek 3 eta 5 kreditu artean dituzte (hautazko irakasgai espezifikoek % 80 3 kreditukoak dira, % 5 4 kreditukoak, eta gainerako % 15a 5 kreditukoak).
- Irakasgai guztiek –bai nahitaezkoek bai hautazkoek– generoa eta/edo berdintasuna aipatzen dituzte gaitasunetan.
- Nahitaezko irakasgai espezifikoek % 100ak (15etik 15ek) berdintasunari buruzko bibliografia espezifikoa dute, eta, hautazko irakasgai espezifikoei dagokienez, berriz, % 90ek (20tik 18k). Bibliografiaren aurkezpena dela eta, APA arauen erabilera da nagusi.

Azkenik, webgunean irakasgai bakoitzari buruz ematen den informazioari dagokionez, gehienetan ez da aipatzen zer sail arduratzen den irakasgai bakoitzaz, ezta irakasleak zeintzuk diren ere; horrenbestez, ezin da gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua jakin.


E) Berdintasunari buruzko gai espezifikoak

Gaiei dagokienez, 92 master ofizialetatik 20k berdintasunari buruzko gai espezifikoak dituzte irakasgai orokorren batean (hau da, berdintasunari buruzko irakasgai espezifikoetako gaiak aintzat hartu gabe). Hona hemen proportzioa:



21. irudia. Irakasgai orokorretan generoari buruzko gai espezifikoak dituzten master ofizialen proportzioa, guztizkoaren arabera

Jakintza arloei erreparatuz, 23etatik 12k irakasgai orokorretan berdintasunari buruzko gai espezifikoak dituzten masterrak dituzte.




22. irudia. Irakasgai orokorretan berdintasunari buruzko gai espezifikoak dituzten masterrak biltzen dituzten jakintza arloen proportzioa

Hona hemen proportzioa, jakintza arlo ezberdinen arabera:

Jakintza arloa	Irakasgai orokorren batean gai espezifikoak dituzten masterren kop.	Jakintza arloko masterren kopurua, guztira	%
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	3 master	5 master	% 60
Hezkuntza	1 master	4 master	% 25
Ekonomia eta Enpresa	2 master	7 master	% 28,5
Zuzenbidea	1 master	3 master	% 33,3
Kazetaritza eta Komunikazioa	1 master	3 master	% 33,3
Historia	1 master	2 master	% 50
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	2 master	4 master	% 50
Psikologia	1 master	2 master	% 50
Soziologia eta Politika Zientzia	4 master	4 master	% 100a
Soziologia Juridikoa	1 master	1 master	% 100a
Biologia Molekularra eta Biomedikuntza	2 master	11 master	% 18,18
Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak	1 master	2 master	% 50


Hortaz, irakasgai orokorren batean gai espezifikoak dituzten master gehien dituzten jakintza arloak Soziologia eta Politika Zientzia (4 master, 4tik) eta Soziologia Juridikoa (1 master, 1etik) dira. Aldiz, gairen bat baduten arloen artean gai espezifiko gutxien dituen arloa Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak da.

Jarraian, modu grafikoan irudikatu dugu gai espezifikoak dituzten masterren proportzioa, jakintza arloaren arabera:



23. irudia. Berdintasunari buruzko gai espezifikoak dituzten masterren proportzioa, jakintza arloaren arabera

Guztira, berdintasunari buruzko 35 gai espezifiko daude irakasgai orokorretan. Halaber, 32 irakasgai orokorrek dituzte gai espezifikoak, eta master ofizial guztietan 1.684 irakasgai orokor daude. Proportzioa ondorengo grafikoan ikus dezakegu:




24. irudia. Generoari buruzko gai espezifikoak dituzten irakasgai orokorren proportzioa, guztizkoaren arabera

Irakasgaiok kreditu kopuru ezberdina dute:


Generoari buruzko gai (multzo) espezifikoa biltzen duen irakasgaiaren kredituak	Irakasgai kop.
3 kredituko irakasgaiak	14
4 kredituko irakasgaiak	1
4,5 kredituko irakasgaiak	2
5 kredituko irakasgaiak	5
6 kredituko irakasgaiak	3
8 kredituko irakasgaiak	1
9 kredituko irakasgaiak	2
10 kredituko irakasgaiak	3
15 kredituko irakasgaiak	1

Ondorengo grafikoan, generoari buruzko gai espezifikoak dituzten irakasgaien proportzioa ikus dezakegu, irakasgaien kreditu kopuruaren arabera:



25. irudia. Generoari buruzko gaiak dituzten irakasgaien proportzioa, kreditu kopuruaren arabera

Gai espezifikoak dituen irakasgai motari dagokionez, 35 gaietatik 15 nahitaezko irakasgaiaren batean daude, eta gainerako 20ak, berriz, hautazko irakasgaiaren batean. Jarraian, modu grafikoan irudikatu dugu proportzio hori:



26. irudia. Generoari buruzko gai espezifikoaren proportzioa, halako gaiak dituen irakasgai motaren arabera

Gai espezifikoak dituzten irakasgaietako bakoitzari buruz webguneak eskaintzen duen informazioari dagokionez, gehienetan ez da zehazten zein irakaslek ematen dituzten gai espezifikoak (edo gai horiek biltzen dituzten irakasgaiak). Garaiko Historia Unibertsitate Masterrean bakarrik zehazten da zein irakaslek emango dituzten berdintasunari buruzko gai espezifikoak biltzen dituzten irakasgaiak. Guztira, 4 dira, 2 emakumezko eta 2 gizonezko.

Askotan ez da aipatzen, ezta ere, zer sailen ardurapean dagoen gaia biltzen duen irakasgaia. Gai espezifikoak biltzen dituzten 24 irakasgaietatik 7ri dagokienez baino ez dakigu:

- Soziologia 2
- Politika eta Administrazio Zientzia
- Ekonomia Aplikatua I
- Ekonomia Analisiaren Oinarriak II
- Oviedoko Unibertsitateko Ekonomia Saila
- Valenziako Unibertsitateko Historia Garaikidea Saila
- Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Laburbilduz, berdintasunari buruzko gai espezifikoek dagokienez, honako hau ikus dezakegu:


- Master ofizialen % 21,7k berdintasunari buruzko gai espezifikoak biltzen dituzte irakasgai orokorren artean.
- Irakasgai orokorren % 1,9k baino ez dituzte berdintasunari buruzko gai espezifikoak biltzen.
- Jakintza arloen % 52k irakasgai orokorren artean berdintasunari buruzko gai espezifikoak biltzen dituzten masterrak dituzte.
- Irakasgai orokorren batean gai espezifikoak dituzten master gehien dituzten jakintza arloak Soziologia eta Politika Zientzia (4 master, 4tik) eta Soziologia Juridikoa (1 master, 1etik) dira. Aldiz, gairen bat baduten arloen artean gai espezifiko gutxien dituen arloa Giza Baliabideak eta Lan Arriskuak da.

Eta, irakasgai espezifikoekin gertatzen den bezala, berdintasunari buruzko gai espezifikoak dituzten irakasgai orokorrei buruz webguneak ematen duen informazioari dagokionez, oro har ez du daturik ematen ez irakasgaia ematen duten irakasleei buruz, ez irakasgaiaren ardura duen sailari buruz.

F) Ikerketa ildoak

Ikerketa ildoak aztertu ondoren, **master ofizialen % 7,6k bakarrik dute berdintasunari eta/edo genero ikuspegiari buruzko ikerketa ildoren bat**. Hona hemen datu zehatzak:

Master ofizial guztietatik (92), 16k ez dute beren ikerketa ildoei buruzko informaziorik ematen. Gainerako 78 masterretatik, 7k generoari buruzko ikerketa ildoren bat dute eta gainerako 69ek, berriz, ez dute berdintasunari edo genero ikuspegiari buruzko inolako ikerketa ildorik. Jarraian, modu grafikoa irudikatu dugu proportzio hori:



27. irudia. Master ofizialen proportzioa, beren ikerketa ildoei dagokienez

Hona hemen berdintasunari edo genero ikuspegiari loturiko ikerketa ildoren bat baduten master ofizialak:


Jakintza arloa	Masterra	Ikerketa ildoak, guztira	Berdintasunari eta/edo genero ikuspegiari buruzko ikerketa ildoen kop.	Berdintasunari eta/edo genero ikuspegiari buruzko ikerketa ildoen %, guztizkoari dagokionez
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	Elikadura eta Osasuna Unibertsitate Masterra	18	2	% 11
Zuzenbidea	Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterra	11	1	% 9
Hezkuntza	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Unibertsitate Masterra	40	1	% 2,5
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra	7	1	% 14
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra	6	6	% 100a
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak Unibertsitate Masterra	10	1	% 10
Psikologia	Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Antolamendua eta Kultura Unibertsitate Masterra	87	5	% 6

7 masterrotan, ikerketa ildo guztietatik berdintasunari eta/edo genero ikuspegiari loturikoei erreparatuz, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean ez beste guztietan generoari buruzko ikerketa ildoak oso gutxi dira, % 2, % 5 eta % 14 inguru (aipatu master horretan, ikerketa ildoen % 100ak genero ikuspegia du abiapuntu).

Bestalde, master bakoitza jakintza arlo bati dagokio; hortaz, 7 jakintza arlok berdintasunari eta/edo genero ikuspegiari loturiko ikerketa ildoak dituen masterren bat dute.


G) Masterretako irakasleak

Master ofizialetako bakoitzaren arduradunari buruzko informazioa bildu ondoren ikus daitekeenez, **masterren arduradunak nagusiki gizonezkoak dira**. Zehazki, 92 master ofizialetatik 71 –% 77 baino gehixeago– gizonezko baten ardurapean daude, eta gainerako 21ak, berriz, emakumezko baten ardurapean.



28. irudia. Gizonezkoen edo emakumezkoen ardurapean dauden masterren proportzioa

Batzorde akademikoei dagokienez, ugarienak emakumezkoek eta gizonezkoek osatutakoak dira, eta, ondoren, oso-osorik gizonezkoek osatutakoak. Zehazki, 92 masterretatik 47tan batzorde mistoak daude; 37tan, oso-osorik gizonezkoek osatutako batzordeak; eta 5etan, berriz, oso-osorik emakumezkoek osatutakoak³.



29. irudia. Master ofizialeko batzorde akademikoen osaketa

³ 2011ko maiatzaren 18an, master ofizialetako hiruk oraindik ez dute beren batzorde akademikoaren osaketa zehaztu.

Batzorde akademiko mistoen barruan, oro har gizonzkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa da. 47 batzorde akademiko mistoetatik 32 2 gizonzkoak eta 1 emakumezkoak osatzen dituzte, eta 15, berriz, 2 emakumezkoak eta 1 gizonzkoak.




30. irudia. Batzorde mistoen osaera

Hona hemen osorik emakumezkoek osaturiko batzorde akademikoa duten masterrak:

Jakintza arloa	Masterra
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	Elikadura eta Osasuna Unibertsitate Masterra
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	Ikasketa Feministak eta Generoak Unibertsitate Masterra
Psikologia	Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Antolamendua eta Kultura Unibertsitate Masterra
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua Unibertsitate Masterra Kontrol Injeniaritza, Automatizazioa eta Robotika Unibertsitate Masterra

Irakasle taldean emakumezkoen eta gizonzkoen proportzioari dagokionez, **master ofizial gehienetan gizonzko gehiago dago**. Hona hemen datu zehatzak: 92 master ofizialetatik 82tan gizonzko gehiago dago, emakumezkoak baino; 8tan, emakumezko gehiago; eta 2tan, emakumezkoen eta gizonzkoen kopuruak parekatuta daude.



31. irudia. Masterrak, irakasle taldeko emakumezkoen eta gizonzkoen proportzioari dagokionez

Gizonezko irakasle gehien dituzten masterren zerrendan nabarmentzekoak dira Ingeniaritza Termikoa Unibertsitate Masterra eta Laserrak eta Beren Aplikazioak Kimikan Unibertsitate Masterra (Kimilaserra), horietan irakasleen % 100a gizonezkoak baitira. Bestalde, 82 master horietatik erdian gutxi gorabehera irakasleen % 70 baino gehiago dira gizonezkoak. Zehazki, 82 masterretatik 20tan irakasleen % 80 baino gehiago dira gizonezkoak, eta beste 23 masterretan, berriz, irakasleen % 70 baino gehiago.

Ondorengo masterretan, irakasleen % 70 baino gehiago gizonezkoak dira:

Jakintza arloa	Masterra	Emakumezkoen eta gizonezkoen kop.	Emakumezkoen eta gizonezkoen %
Arkitektura	Eraikitako Ondarearen Zaharberritzea eta Kudeaketa Osoa Unibertsitate Masterra	36 gizonezko 6 emakumezko	% 85,7 gizonezkoak % 14,3 emakumezkoak
Artea	Ikuskizunaren Arte eta Zientziak Unibertsitate Masterra	28 gizonezko 6 emakumezko	% 82,4 gizonezkoak % 17,6 emakumezkoak
Zientzia eta Teknologia Espaziala	Espazioko Zientzia eta Teknologia Unibertsitate Masterra	29 gizonezko 11 emakumezko	% 72,5 gizonezkoak % 27,5 emakumezkoak
Zuzenbidea	Oinarrizko Eskubideak eta Botere Publikoak Unibertsitate Masterra	18 gizonezko 5 emakumezko	% 78,2 gizonezkoak % 21,7 emakumezkoak
	Gizarte Demokratikoa, Estatua eta Zuzenbidea Unibertsitate Masterra	15 gizonezko 4 emakumezko	% 78,9 gizonezkoak % 21,1 emakumezkoak
Ekonomia eta Enpresa	Banka eta Finantza Kuantitatiboak Unibertsitate Masterra	22 gizonezko 4 emakumezko	% 84,6 gizonezkoak % 15,4 emakumezkoak
	Finantzak eta Finantza Zuzendaritza Unibertsitate Masterra	28 gizonezko 8 emakumezko	% 77,8 gizonezkoak % 22,2 emakumezkoak
Hezkuntza	Teknologia, Ikaskuntza eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra	10 gizonezko 2 emakumezko	% 83,3 gizonezkoak % 16,7 emakumezkoak
Nazioarteko Ikasketak eta Garapenerako Lankidetzak	Garapena eta Nazioarteko Lankidetzak Unibertsitate Masterra	31 gizonezko 13 emakumezko	% 70,4 gizonezkoak % 29,6 emakumezkoak
	Globalizazioa eta Garapena Unibertsitate Masterra	29 gizonezko 8 emakumezko	% 78,4 gizonezkoak % 21,6 emakumezkoak
	Nazioarteko Ikasketak Unibertsitate Masterra	17 gizonezko 2 emakumezko	% 89,5 gizonezkoak % 10,5 emakumezkoak
Filosofia	Mundu Globalerako Filosofia Unibertsitate Masterra	9 gizonezko 3 emakumezko	% 75 gizonezkoak % 25 emakumezkoak
	Zientzia Kognitiboa eta Giza Zientziak Unibertsitate Masterra	17 gizonezko 4 emakumezko	% 81 gizonezkoak % 19 emakumezkoak
Fisika, Kimika eta Materialak	Zientzia eta Teknologia Kuantikoak Unibertsitate Masterra	11 gizonezko 2 emakumezko	% 84,6 gizonezkoak % 15,4 emakumezkoak
	Materialen Fisika eta Teknologia Unibertsitate Masterra	27 gizonezko 6 emakumezko	% 81,8 gizonezkoak % 18,2 emakumezkoak
	Nanozientzia Unibertsitate Masterra	19 gizonezko 5 emakumezko	% 79,2 gizonezkoak % 20,8 emakumezkoak
	Laserrak eta Beren Aplikazioak Kimikan Unibertsitate Masterra (Kimilaserra)	2 gizonezko	% 100a gizonezkoak
	Material Berriak Unibertsitate Masterra	48 gizonezko 13 emakumezko	% 78,7 gizonezkoak % 21,3 emakumezkoak
	Kimika Sintetiko eta Industrialak Unibertsitate Masterra	5 gizonezko 1 emakumezko	% 83,3 gizonezkoak % 16,7 emakumezkoak

Historia	Europa eta Mundu Atlantikoa: Boterea, Kultura eta Gizartea Unibertsitate Masterra	18 gizona 4 emakume	% 81,8 gizona % 18,2 emakume
Ingeniaritza eta Teknologia	Gailu eta Sistema Fotovoltaikoak Unibertsitate Masterra	17 gizona 7 emakume	% 70,8 gizona % 29,2 emakume
	Proiektuen Zuzendaritza Europar Unibertsitate Masterra	27 gizona 5 emakume	% 84,4 gizona % 15,6 emakume
	Eraikuntzaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	66 gizona 6 emakume	% 91,7 gizona % 8,3 emakume
	Material Aurreratuaren Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	25 gizona 10 emakume	% 71,4 gizona % 28,6 emakume
	Prozesu Kimikoen Ingeniaritza Unibertsitate Masterra	20 gizona 4 emakume	% 83,3 gizona % 16,7 emakume
	Ingeniaritza Energetiko Iraunkorra Unibertsitate Masterra	28 gizona 5 emakume	% 84,8 gizona % 15,2 emakume
	Ingeniaritza Mekanikoa: Diseinua eta Ekoizpena Unibertsitate Masterra	29 gizona 4 emakume	% 88 gizona % 12 emakume
	Ingeniaritza Termikoa Unibertsitate Masterra	4 gizona	% 100a gizona
	Energia Berriztagarrien Integrazioa Sistema Elektrikoan Unibertsitate Masterra	17 gizona 7 emakume	% 70,8 gizona % 29,2 emakume
	Energia Eraginkortasun eta Jasangarritasunaren Ikerketa Industrian, Garraioan, Eraikuntzan eta Hirigintzan Unibertsitate Masterra	21 gizona 3 emakume	% 87,5 gizona % 12,5 emakume
Berrikuntza eta Jakintza	Berrikuntza eta Jakintzaren Gestioa Unibertsitate Masterra	41 gizona 7 emakume	% 85,4 gizona % 14,6 emakume
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia Unibertsitate Masterra	20 gizona 7 emakume	% 74 gizona % 26 emakume
Matematika	Matematikarako Ikerkuntzaren Hastapena Unibertsitate Masterra	30 gizona 12 emakume	% 71,4 gizona % 28,6 emakume
	Eredugintza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioa Unibertsitate Masterra	28 gizona 10 emakume	% 73,7 gizona % 26,3 emakume
	Kuaternarioa: Ingurugiro Aldaketak eta Giza Oinatza Unibertsitate Masterra	37 gizona 12 emakume	% 75,5 gizona % 24,5 emakume
Kazetaritza eta Komunikazioa	Gizarte Komunikazioa Unibertsitate Masterra	12 gizona 12 emakume	% 50 gizona % 50 emakume
	Multimedia Kazetaritza Unibertsitate Masterra	18 gizona 7 emakume	% 72 gizona % 28 emakume
	Multimedia Komunikazioa UPV/EHU-EITB Unibertsitate Masterra	29 gizona 11 emakume	% 72,5 gizona % 27,5 emakume
	Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra	34 gizona 13 emakume	% 72,3 gizona % 27,7 emakume
Soziologia Juridikoa	Soziologia Juridikoa Nazioarteko Masterra	12 gizona 5 emakume	% 70,5 gizona % 29,5 emakume
Soziologia eta Politika Zientzia	Gobernantza eta Politika Ikasketak Unibertsitate Masterra	33 gizona 4 emakume	% 89,2 gizona % 10,8 emakume
	Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan Unibertsitate Masterra	30 gizona 7 emakume	% 81 gizona % 19 emakume
	Euskal Nazionalismoa XXI. Mendean Unibertsitate Masterra	39 gizona 12 emakume	% 76,5 gizona % 23,5 emakume

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua Unibertsitate Masterra	16 gizona 16 emakume	% 50 gizona % 50 emakume
	Sistema Elektroniko Aurreratuak Unibertsitate Masterra	21 gizona 3 emakume	% 87,5 gizona % 12,5 emakume
	Sistema Informatiko Aurreratuak Unibertsitate Masterra	37 gizona 13 emakume	% 74 gizona % 26 emakume
	Sare Mugikorretako Informazio eta Komunikazio Teknologia – SMIKT– Unibertsitate Masterra	67 gizona 17 emakume	% 79,8 gizona % 20,2 emakume

Hona hemen irakasle taldean emakumezko gehien dituzten masterrak:

Jakintza arloa	Masterra	Emakumezkoen eta gizonen kop.	Emakumezkoen eta gizonen %
Biomedikuntza, Bizi Kalitatea eta Osasuna	Elikadura Kalitatea eta Segurtasuna Unibertsitate Masterra	38 emakume 20 gizona	% 65,5 emakume % 34,5 gizona
	Farmakologia, Medikamenduen Garapena, Balioespena eta Erabilera Arrazionala Unibertsitate Masterra	45 emakume 35 gizona	% 56,2 emakume % 43,8 gizona
	Analisi Forentsea Unibertsitate Masterra	27 emakume 25 gizona	% 52 emakume % 48 gizona
Ekonomia eta Enpresa	Ekonomi Integrazioa Unibertsitate Masterra	9 emakume 5 gizona	% 64,2 emakume % 35,7 gizona
Feminismoa, Generoa eta Berdintasuna	Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra	33 emakume 4 gizona	% 89 emakume % 11 gizona
Hizkuntza, Literatura eta Hizkuntzalaritza	Hizkuntzen Eskurapena Testuinguru Eleaniztunetan (LAMS) Unibertsitate Masterra/Master in Language Acquisition in Multilingual Settings (LAMS)	14 emakume 8 gizona	% 63,6 emakume % 36,4 gizona
Ingurumena eta Baliabide Naturalak	Ingurugiroaren Agrobiologia Unibertsitate Masterra	29 emakume 26 gizona	% 52,7 emakume % 47,3 gizona
Psikologia	Psikologia: Gizabanakoa, Taldea, Antolamendua eta Kultura Unibertsitate Masterra	20 emakume 17 gizona	% 54 emakume % 46 gizona

Emakumezkoen eta gizonen proportzioari erreparatu, nabarmentzekoa da Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra, irakasle ia % 90 emakumezkoak baitira. Alabaina, gainerako masterretan, emakumezkoen eta gizonen arteko proportzioa ez da hain desberdina.

Amaitzeko, hona hemen gizonen eta emakumeen proportzio bera duten masterrak:

Jakintza arloa	Masterra	Emakumeen eta gizonen kop.	Emakumeen eta gizonen %
Kazetaritza eta Komunikazioa	Gizarte Komunikazioa Unibertsitate Masterra	12 gizonen 12 emakumeen	% 50 gizonen % 50 emakumeen
Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia	Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua Unibertsitate Masterra	16 gizonen 16 emakumeen	% 50 gizonen % 50 emakumeen